

Osteguna, 2010/04/15


Kronika.net
Argazkiak
Elkarrizketak
Jasota Bezala
Inkesta eta Eztabaida
Zerbitzu eta Helbideak
Agenda
Kronika Bereziak
Dokumentuak
Publizitatea
Egin Bazkide

**AURREKO EDIZIOAK**  
Aukeratu nahi duzun data




2010	
apirila	
14	

▷ **BILATU**

**ARGITARATZAILA**



**LAGUNTZAILEAK**

KRONIKA.NET

**TXOTX DENBORALDIA**

**Andoni Aduriz sukaldariak irekiko du txotx denboraldia Astigarragan**

2008/01/07 - Astelehena

andoni luis aduriz, errenteriako mugaritz jatetxeko sukaldariak irekiko du aurten txotx denboraldia astigarragan, urtarrilaren 16an, petritegi sagardotegian, 13:45etan. 1994az gero egiten dute astigarragan sagardo berriaren eguna, sagardo denboraldia irekitzeko ekitaldia, eta urtero pertsona ospetsu bat izaten da ohorezko lehenengo txotxa egiteko ardura duena. alde zurretik, eguerdiko 12:00etan, bixente arrizabalaga astigarragako alkateak 2007ko uztak eman duen sagardoaren berri emango du, sagardoetxean, kultur etxean. sagardo berria aurkeztuko den lehen egun honetan, barrikoteak jarriko dituzte astigarragako tabernetan, egun guztian zehar.

hernanikoa, aurretik aurtengo hernaniko txotx irekiera ekitaldia alde zurretik egingo da, datorren igandean bertan, javier vizcaino kazetariaren eskutik. goiz samar egitea bestelako fetxa egokirik ez zegoelako izan da, hernaniko txotx komisiok jakitera eman duenez. urtarrilaren 20an, san sebastian eguna da aurten; iñude eta artzainak berriz urtarrilaren 27an; eta inauteriak otsailean. hori dela eta, aurreratu dute aurten txotx irekiera ekitaldia, baina sagardotegi gehienak san sebastian bueltan irekiko dira hernanin, urteroko ohiturari segiz. 12,5 milioi litro sagardo astigarragako sagardoetxeak jakitera eman duenez, 12,5 milioi litro sagardo egin dira euskal herrian 2007an. sagardo berriak aroma handia du, gorputz handia eta fruta fresko ukitua, adituen esanetan.

 Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

**BILATZAILA**  
Idatzi bilaketa hitza(k)

▷ **BILATU**

**ARGAZKIAK**



▷ **IKUSI**

Momentu honetan inkestariak ez dago

▷ **Eztabaida Lekua**



**Dobera bloga**  
Zure bloga gurekin




GAURKO KRONIKA

